

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
93 positibo berri	1.623 hildako (uztailaren 17tik)	59 positibo berri	Eguneratu gabe hildako
21.935 (uzt 17tik) positibo guztira*	4.394 (uzt 17tik) ospitalizatuta	Eguneratu gabe-positibo guztira	Eguneratu gabe ospitalizatuta

*Hernanin-Astigarragan: Eguneratu gabe Sendatuak: Eguneratu gabe

Eguneko zentroa ixtea, eta udalekuak bertan behera gelditzea erabaki du Hernaniko Udalak

Larunbatean Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen egoitzetan irteerak murriztea eta eguneko zentroak eta udalekuak ixtea erabaki zuen eta Hernaniko Udalak bat egin du ezarritako neurriekin.

HERNANI COVID-19

Pasa den asteburuan, Osasun sailak, eta hiru Foru Aldundiek, «eguneko zentroak eta udalekuak aldi baterako ixtea eskatu zuten». Eta Hernaniko Udalak, bat egin du, berehala aplikatutako erabakiekin eta «hainbat zerbitzuetan aldaketa batzuk izango dira».

Udaleku irekiak eta kirol udalekuak, bertan behera

Gaurtik aurrera, bertan behera geldituko dira Hernaniko udaleku ireki zein kirol udalekuak. Eta Udalak jakinarazi du, parte hartzaileen familiarterako bakoitzari komunikatuko zaiola erabaki hau.

Udalekuek gain, eguneko zentroan ere neurriak ezarri dituzte, izan ere, larunbatean,

Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen «Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen egoitzetan irteerak murriztea eta eguneko zentroak ixtea». Horrekin bat eginez, Hernaniko Udalak, atzo eguneko zentroa ixteko agindua eman zuen, eta azaldu dute «agindua bezain laister, bertako erabiltzaileak etxeratu» egin zirela.

Adineko Egoitzan ere, neurriak

Adineko egoitzan bizi diren pertsonak «ezingo dute kalera atera» azaldu du Udalak, momentuz eta agindu berriak jaso bitartean. Familiarterakoen bisitei dagokienez, bisitak, «hurbi-leko pertsona bakar batengana mugatzen dira, beti bera izanik, ekainaren 30eko foru aginduan adierazitako segurtasun neu-



Egoerak behartuta, eguneko zentroa «itxita egongo da momentuz eta agindu berriak jaso bitartean».

rrirei eutsiz».

Hala ere, Hernaniko Udalak argitu nahi izan du, aipatutako zerbitzuetan ez dela positibo

kasurik izan, «Osasun sailak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako hartutako erabakiak direlako hartu ditugu neurri hauek».

Halaber, herritarrei zuhurtiaz eta arduraz jokatzeko eskatu du Udalak, «birusaren hedapena sahieste aldera». **K**

Haurren zaintzarako kontratazioak egiteko dirulaguntzak emango ditu, Astigarragako Udalak

Koronabirusak eragindako osasun krisiaren eraginez, haurren ziantza «zaildu» egin dela azaldu du Astigarragako Udalak. Hori horrela, 0 eta 4 urte bitarteko haurren zaintza gastua ordaintzeko dirulaguntzak emango ditu, eta horretarako 25.000euro aurreikusi ditu.

ASTIGARRAGA UDALA

Astigarragako Udalak, haurren zaintzarako kontratazioak egiteko dirulaguntzak emango ditu,

izan ere, Covid-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, «zaildu egin da haurren zaintza».

Dirulaguntza hauek, 2020ko

ekainaren 1etik, abenduaren 31ra arte, «0 eta 4 urte bitarteko haurrak zaintzeko kontratazioak egin dituzten Astigarragako herritarrek eska ditzaketek».

Familia bakoitzak kontratazio gastuaren %50a jasoko du, «gehienez ere 500 euroko laguntza arte hileko». Hala ere, salbuespen kasu batzuk aurreikusi ditu Udalak, aipatutako ehuneko eta kopuruari gehikuntzak aplikatzeko. Hala nola, guraso bakarreko familiek, %10 gehiago, genero indarkeria biktima

direnek %10 gehiago, familia unitateko kideren batek %33tik gorako urritasunen bat badu, %10 gehiago, eta DSBE jasotzen duten titularrak edo onuradunak, gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonak, %10 gehiago.

Eskariak aurkezteko, epeak eta tokia

Jada irekita dago eskariak aurkezteko epea, larunbatean ireki zen hain zuzen, eta azaroaren 15ean amaituko da.

Eskariak, bi bideetatik egin daitezke. Modu telematikoa, «udal zerbitzu telematikoen tresna erabiliz», eta modu presentzialean, «udaletxeko erregistro gerturatuz». **K**

«Haurren kontratazioak egiteko dirulaguntzetarako, 25.000 euro aurreikusi ditugu»

ALAI A
ODONTOLOGIA ZENTROA

PREBENTZIO ETA KONTSERBAZIO ODONTOLOGIA
HORTZ ESTETIKA
AHO KIRURGIA
INPLANTEAK
PROTESI FINKOA ETA MUGIKORRA
PERIODONTZIA
ORTHOAPNEA

ODONTOPEDIATRIA
ERRADIOGRAFI PANDRAMIKOAK
TELERADIOGRAFIK
3D SCANNERRA
AHO BARRUKO SCANNERRA
KIRURJIA NABEGATUA
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA

ETENIK GABEKO ORDUTEGI BERRIA
Astelehenetik ostiralera: 08:30 - 21:00
Larunbatetan: 08:30 - 14:00

Antziola 11, behea. HERNANI Tel. 943 33 53 73 www.alaiaclinica.com alaiahernani@gmail.com

BRINTZA
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA

Lan-Aholkularitza
Fiskala
Aseguruak Inbertsioak
Zerbitzu Juridikoak

www.brintza.com
URBIETA KALEA 15, HERNANI
Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

TILIN * TOLON
BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK
KONSULTAK
943 55 56 94

Txirrila, 10 - HERNANI

EGURDIA



GAUR Gaur tenperatura pixka bat jaitsiko da. Egunaren lehen zatian giroa eguzkitsua izango da, baina ipar-mendebaldeko haizearekin kostaldetik behe-hodeiak ager daitezke. **Min.18° / Max.24°**



BIHAR Biharko giroa zertxobait ezegonkorragoa izango da. Hodei gehiago ikusiko dugu eta noizbehinka aktiboagoak izango dira; era horretan, zaparradaren bat bota dezake **Min.18° / Max.25°**

(euskalet)



LAGUNTZAILEAK



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Aurrekontu partehartzaileetako galdeketa, bihar itxiko da

Astigarragako Udalak 210.000 eroko aurrekontua, herritarren esku utzi du, aurrekontu partehartzaileekin. Eta bihar izango da galdetegian parte hartzeko azken eguna.

ASTIGARRAGA AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK



Bihar itxiko da aurrekontu partehartzaileen galdetegia.

Aurrera doa Astigarragako Udala, martxoan martxan jarri zen aurrekontu partehartzaileen prozesuarekin, eta jadanik azken «txanpara» heldu da. Bertan parte hartzeko, galdeketa bat jarri zuten abian uztailearen 13an, eta bihar itxiko da.

Gainera, bozketan parte hartuko dute, 2020ko urtarilaren leian, Astigarragan errolatuta dauden, eta 16 urte edo gehiago

dituzten pertsonak. Galdeketa honetan, onartutako proposamenen zerrendatik «lau hautatu ahal izango dira gehienez». Emaitzaren arabera, aurrekontu partehartzaileetarako ezarritako 210.000 euroak «agortu arte esleituko dira kredituak» boto gehien dituen proposametik hasita.

Modu telematikoa egin dai-

teke galdeketa, Astigarragako udalaren webgunearen bidez, edo presentzialki ere egin daiteke. Gaur eta bihar mahaiaik jarriko baitituzte, «telematikoki parte hartzeko zailtasunak dituztenentzat». Gaur, Norberto Amandoz plazan egongo da mahaia, 12:00etatik, 13:30etara, eta bihar berriz, Ergobia plaza-txoan, 12:00etatik 13:30etara. **K**



49 odol emaile izan ziren guztira, hilaren 7an parte hartu zutenak.

Hilaren 7an, 49 izan ziren odol emaileak

HERNANI ODOL EMAILEAK

Apirilean hasi ziren estrakzioak Goiz Eguzkin egiten, toki egokiagoa zelako, osasun alarma egoeran. Ordutik, hilero egin dituzte bertan. Izan ere, «beharrezkoa» da odol emate lanekin jarraitzea, COVID-19ak eragindako egoera honetan ere. Uztailearen lehenengo astean, hau da, hilaren 7an, odola emateko hitzordua ezarri zuten eta guztira 49 odol emailek hartu zuten parte.

Osasun Etxearen ohar garrantzitsu bat helarazi du, Goizuetako Udalak

GOIZUETA UDALAREN OHARRA

Goizuetako Udalak, ohar garrantzitsu bat helarazi nahi zian du; «Uztailearen 8tik 15era bitartean, Zarauzko Talai-mendi kanpinean egon denak, 646 513 629 telefonora deitu eta PCR proba egin behar-ko du». Kanpinean antzemandako agerraldia dela medio.

Larunbatean, 12 pelotari sailkatu ziren finalerdietarako

HERNANI PELOTA

Larunbatean hasi ziren Zikuñagako Papelerako II Txapelketako lehen finalerdiak jokatzeko, eta C.D. Hernaniko 12 pelotari sailkatu dira finalerdietara; Kadete 2º mailan, Arluziaga, Deskarga eta Manterola; Kadete 1º mailan, Jara eta Etxarri; Jubenil 2º mailan, Oiartzabal eta Insausti; Nagusi 1º mailan, Urkizu, Labaka eta Salaberria, eta azkenik Nagusi 2º mailan, Arizmendi eta Altuna. Gainontzeko finalerdiak gaurtik aurrera jokatu dira, eta finalak hilaren 25ean izango dira.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

MIREN USARRALDE ARREGI

Uztailearen 18an hil zen, 88 urte zituela

- Goian bego -

Bere senarra: Juanito Galdeano; seme-alabak: Arantxa eta Jokin, Ixiar eta Sergio; bilobak: Oinatz, Leire eta Mikel; Intza eta Itsaso; anai-arrebak: Garbiñe eta Ramon (†), Juan eta Sara, Joxebe, Jose Kruz (†) eta Karmen, Maria Jesus (†) eta Gregorio, Inaxi eta Juanito (†); ezkon anai-arrebak: Pako (†) eta Teodora (†), Ramona eta Joxe (†); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.



Jakinartzatzen dugu hileta meza **GAUR ASTELEHENA, hilak 20**, arratsaldeko **SEIETAN, Ereñozuko ANDONI DEUNAREN** elizan izango dela. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko uztailearen 20an

MIREN USARRALDE ARREGI

Besarkada haundi bat

ZURE KOINATA RAMONI ETA ILOBAK



Hernanin, 2020ko uztailearen 20an

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar da asteburuetan prentsa-kioskoan lan egiteko. Euskara jakitea ezinbestekoa da. **Deitu 688 69 40 34**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

ABUZTUAKO

udaleku irekiak 2020

• DOBERA EUSKARA ELKARTEAREKIN •

Informazio gehiagorako:
dobera@dobera.eus 943 33 27 99 - 662 406 692

Hernaniko elkarteekin elkarlanean:
Antzerki taldea, Amher, Bertso Eskola, Kaxkardi, Ttarla...

Astelehenetik ostiralera 9:00 - 13:30
eta astean behin egun pasa bat
Asteka apuntatzeko aukera

Izena emateko
www.dobera.eus
Epea:
Uztailearen 24ra arte
Kopuru mugatuak
izango dira

ABUZTUAK 3-28
LH 1-6
(2008-2013 urte artekoak)

ABUZTUAK 1-21
DBH 1-2
(2006-2007 urte artekoak)